



Mungiako Udalak BBK Mendi Martxarekin bat egingo du Tallu Mendizale Kirol Klubaren eskutik

- Azaroaren 3an, Fernando Valladares dibulgatzaileak hitzaldia emango du Torrebillela Kultur Etxean, krisi klimatikoak eta lurraren biodibertsitatearen galerak eragiten dituzten ebidentzia zientifikoei buruz.

- Azaroaren 5ean Jata mendira egingo den martxa herrikoa izango da. Bertan, desgaitasuna duten pertsonak mendira hurbilduko dira eta ibilbidean zehar hondakinak garbituko dira.

Mungia, 2023ko urriaren 31a. Mungiak mendira begira jarriko da eta BBK Mendi Martxak 2023 hartuko du, herritarrei planeta zaintzeko premiazko konpromisoa helarazi nahi dien ekimena, gure ingurune hurbilenetik hasita. Beste behin ere, Mungiako Udalak bat egiten du helburu horrekin, Jata mendira martxa herrikoi bat eginenez eta Fernando Valladares dibulgatzailearen "Del mar a la montaña" hitzaldiarekin. Azaroaren 5ean eta 3an izango dira, hurrenez hurren.

BBK Mendi Martxak Tallu Mendizale Kirol Klubari esker iritsiko da Mungiara. BBK-k eta Bizkaiko Mendizale Federazioak bultzatutako ekimena da, mendi inklusibo baten, ingurumenaren zaintzaren eta esku-hartze didaktiko eta kirolen premisekin. Zentzu honetan, azaroaren 3an, Torrebillela Kultur Etxean, arratsaldeko 19:30etan, Fernando Valladares argentinarraren hitzaldia izango da, Biologia Zientzietan doktorea eta krisi klimatikoak eta lurraren biodibertsitatearen galerak sortzen dituzten ebidentzia zientifikoei buruzko dibulgatzaile erreferentea.

Azaroaren 5ean, herri martxa bat egingo da Jata mendira (598 m-17,2 km). Jarduera horretan, urritasunak dituzten pertsonak mendira eta naturara hurbiltzea eta Zero Hondakin edo ibilbidea garbitzea helburuak izango dira nagusi. Gainera, jarduera amaitzean, parte-hartzaileek oparipoltsa bat jasoko dute bertako produktuekin.

Jarduera horiek guztiak, gainera, Getxoko Ibilki klubaren laguntzarekin egiten dira, desgaitasuna duten pertsonen gidaritzapean, eta Lurgaia Fundazioaren laguntzarekin, biodibertsitatea kontserbatzen eta natura-ondarea kudeatzen laguntzeko.

Alaitz Erkoreka Mungiako alkateak azaldu duenez, "mendizale amorratuak gara eta inguruan dugun ingurune naturalaren jakitun, BBK Mendi Martxak ekimena hartuko dugu. Haren helburuak bat datoz ingurumenaren arloan Udalak hartutako konpromisoekin, pertsona guztien inklusibitatearekin eta gizarteak gure ingurunea zaintzearen garrantziaz kontzientziatearekin. Bat egiten dugu, zalantzarik gabe".



Ingurumen-erronka

Jarduera horiek hartzeaz gain, datorren azaroaren 11n, Mungia topagune bihurtuko da BBK Mendi Martxak aurtengo ediziorako ezarri duen ingurumen erronkan parte hartu nahi duten pertsona guztientzat: proiektuak sortutako CO2 isuriak konpentsatzea helburu duen zuhaitz landaketa. Gerekiz inguruan izango da, Muxikako udalerrian, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren barruan, eta irteera Matxin plazatik egingo da, 9:00etan.

Lurgaia Fundazioarekin eta Tallu Klubarekin elkarlanean, 9: 00etatik 14: 00etara bitartean, 300 zuhaitz eta zuhaixka inguru landatuko dira, gure baso mistoetako espezie batzuetakoak: haritzak, urkiak, hurritzak, gorostiak, basoko sagarrondoak, mendiko zumarrak, lizarrak edo elorri zuriak, besteak beste.

Behin erronka amaituta, 14: 00ak aldera Mungiara autobusez itzultzea aurreikusten da.

Parte hartzea doan da eta aurretik izena eman behar da hemen: [Federación Vizcaína de Montaña \(bmf-fvm.org\)](http://Federación Vizcaína de Montaña (bmf-fvm.org))